



Goienetxe haizuloan (Bizkaia) aurkitu dute espezie berria, argazkiko batinela. ARG.: CSIC.

Orain arte ezezaguna zen krustazeo bat identifikatu dute Bizkaiko koba batean

Goikoetxe haizuloan, orain arte ezagutzen ez zen krustazeo-espezie bat identifikatu dute Espainiako Natura Zientzien Museoko ikertzaileek (CSIC). *Vejdovskybathinella vasconica* izena eman diote, eta, identifikazioan, ezaugarri morfologikoez gain, azterketa genetikoa ere erabili dute.

Hain zuzen, ikerketan parte hartu duten Ana Camachoren esanean, “azterketa molekularra ezinbestekoa da morfologikoki berdinak diruditen espezieak bereizteko”. Hala, bi generen zatiak sekuentziatu dituzte: COI gene mitokondrial, eta 18S genea, nukleokoa. Horri esker bereizi dute espezie berria.

Vejdovskybathinella vasconica batinela bat da. Krustazeo horiek 0,5-1 mm izaten dituzte, eta lur azpiko uretan bizi dira: putzuak, ur freatikoak, iturriak...●

Alkoholaren arrastoa gazteen DNAn

Asteburuetan edari alkoholdunak edateak uste zuten baino kalte sakonagoak eragiten ditu gazteen gorputzean. Ikerketaren berri Alcohol aldizkarian eman du EHUko Adela Rendón ikertzaileak, Mexikoko Nayarit-eko Unibertsitate Autonomoaren lankidetzarekin. Ikerketa aitzindaria da, orain arte urte luzez edanean jardundako jendearekin ikertu baita alkoholaren eragina; orain, ordea, gazte osasuntsuak izan dituzte ikergai. 18 eta 25 urte bitarteko ikasle-talde batekin egin zuten ikerlana, bitan banatuz: edaten ez zutenak, kontrolerako, eta asteburuetan bakarrik edaten zutenak.

Odol-laginetatik abiatuta, lehenengo, odoleko zelulen mintza osatzen duten lipidoen egoera aztertu zuten. Emaitzak susmo txarra eman zien, eta kaltea DNARA ere iristen ote zen ikustea pentsatu zuten. Horretarako, kometa saiakuntza egin zuten. Odoleko zelula linfotitikoaren nukleoa erauzi zuten, eta elektroforesiaren eraginpean jarri zuten. “Izan ere, kromatina ez badago ondo trinkotua, DNAn kaltea badago, elektroforesian halo bat uzten du; horri



ARG.: © AWESOMESHOTZ /123RF

“kometa-adats” deritzo” azaltzen du Adela Rendón. Eta, hain zuzen ere, alkohola edaten zutenen taldekoen kromatinak halo txiki bat uzten zuen, kontrol-taldekoena baino handiagoa. Zehazki, emaitzen arabera, zelulen % 8k zuten kaltea kontrol-taldean; eta edaten zutenen taldean % 44k. Hala, bada, edaten zutenen taldeak 5,3 aldiz zelula gehiago zituen kaltetuta.

DNAn ikusi duten kaltea ez da esanguratsua, “Zorionez”, ikertzailearen esanean, “baina ez lukete inolako kalterik izan behar, oso denbora gutxi daramatelako alkohola edaten, ez direlako edaten aritu modu kronikoan”.●

